

Amurrioko Adinekoen Kontseilua



**Komunikazioa
eta informazioa**



**Partaidetza eta
gizarte ehuna**



**Errespetua eta
inklusioa**

Amurrioko Adinekoen Kontseilua

Amurrioko Adinekoen Kontseiluak herriko pentsiodunen mugimendu sendoa du aurrekari; izan ere, batak eta besteak antolatzeko eta ordezkatzeko duten jende taldearentzako berariazko politikak errebindikatzeko kezka partekatzen dute.

Euskadi Lagunkoia programa garai bertsuan sortu zen, eta Amurrioko Udala 2016ko uztailaren 28ko osoko bilkuran atxiki zitzaion programari. Herritarrei zuzendutako deialdiaren bidez lantaldea sortu zen, eta beharren diagnostikoa egiteari ekin zion, adinekoen zerbitzuak eta bizi kalitatea zehazteko helburuarekin.

Diagnostikoa egiteko ardura zuen lantaldea urtebetez aritu zen lanean, ekintza plana osatu arte. Plan horretan Adinekoen Kontseilu baten inguruan antolatu beharra aipatu zen, beste gai garrantzitsu batzuez gain.

Kontseiluaren egitasmoa zehazten hasi ziren, helburuak, organigrama eta abar. Nolanahi ere, prozesuan parte hartzen ari ziren adinekoek nahiago izan zuten antolaketa metodologiatik haratago joan eta landu nahi zituzten gaiak zehaztea: aisialdirako programazioa, adinekoentzako eremua zehaztea eta bakardadearen inguruko hausnarketa egitea, beste gai garrantzitsu batzuen artean.

Beste deialdi ireki bat egin ondoren, adinekoen lantaldea hilean behin biltzen hasi zen, bakarrik edo adineko beste pertsona batzuekin bizi diren 75 urtetik gorako pertsonen bizi baldintzei buruz hitz egiteko. Adinekoen aisialdi eredua aztertu zuten, zaharkitua zegoelakoan, eta Nagusi gunera egokitzeko aukerak eztabaidatu zituzten.

Prozesu osoan partaide izan dira udaleko partaidetzako area eta adinekoen area. Saio guztietan hartu dute parte eta metodologiaren plangintza egin dute.

Urtebeteko eztabaida prozesuaren ondoren, lantaldeak maila politikora eraman nahi izan zituen proposamenak, eta hor hasi zen Adinekoen Kontseilua osatzeko benetako prozesua.

Gaien araberrako taldeetan antolatzea proposatu zen, proiektuak lan egiteko:

- Zahartze aktiboa eta osasuntsua

- Nagusi gunea
- Laguntzaren eta zaintzaren arloa
- Aisialdia eta prestakuntza

2019ko azaroaren 28ko osoko bilkuran onartu zen Amurrioko Adinekoen Kontseilu Sektorialaren araudia, tokiko erakundearen organo osagarri gisa eta Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 130. eta 131. artikuluei jarraikiz.

Kontseiluaren egiturari erreparatuta, aipatutako lau lan arloez gain, osoko bilkura ere izango zuela aurreikusi zen: alkatetzaren esku dago lehendakaritza, lehendakariordea kontseilukideen artean hautatzen dute, proiektua laguntzen diharduten langileak arduratzen dira idazkaritza teknikoaz, eta gainerako kideak lau lantaldeetako ordezkariak dira.

Azpmarragarria da proiektuaren bilakaeran ez dela eragin politikorik izan, autonomiari eutsi zaiola eta, horrela, organoaren izaera aholku emaila sendotu dela. Hala, gaien arabera osatutako taldeek eta osoko bilkurek ezartzen duten laneko dinamikaz gain, Kontseiluak benetako aholkularitza lana egiten du, eta erabakigarria izaten da ekimen sozialak, urbanistikoak eta jai ereduari buruzkoak, besteak beste, proposatzen direnean.

Proiektua aurrera eramateko erabilitako gobernantzak pertsonak ditu ardatz, eta parte hartzean oinarritutako lanaren irizpideari jarraitzen dio. Adineko pertsonak, adinekoen areako teknikariak eta partaidetzako teknikariak osatzen duten taldea hilean behin biltzen da, gutxienez, eta herritarrentzat (Kontseiluko kide ez direnentzat) irekita egoten den biltzarra urtean bi aldiz deitzen dute, organoaren jarduera eta aurrerapenak ezagutzera emateko.

Proiektua bilakatuz joan da, inplikaturako pertsonen beharretatik abiatuta parte hartzeko gune egonkorrak sortu arte. Une horretatik aurrera, pandemiak mugak ezarri bazituen ere, Kontseiluak hainbat lan ildo jorratu ditu, hala nola bakardadeari buruzko azterlana, zenbait udal baliabidetatik esku hartze koordinatuak eragin dituenak. Kontseiluak Nagusilan elkartearen proposamena ekarri zuen Amurrion, bakardade egoeretan laguntasuna emateko bide egokia zelakoan. Kontseiluaren 65+ aldizkaria sortu da. Era berean, Nagusi guneko egitaraua birmoldatu eta birbideratu da, eta autogestioan oinarritutako orientabide berria hartu du hitzaldien, zine forumaren, bidaien eta abarren inguruan. Adinekoentzako baliabideen gida ere prestatu da. Mugi Amurrio ekimenaren barruan, orientazio eta jarduera fisikoaren inguruko zerbitzua sortu da, kezagarria baita adinekoen jarduera fisikorik eza. Zerbitzu horrek lotura sendoa du Osakidetzarekin eta gizarte arearekin, eta, hala, jarduera fisikoa egiteko talde finkoak eratu dira. Ekimen garrantzitsu horiek eta beste batzuk eraman dira aurrera.

1. Erakunde sustatzaileak

Amurrioko Udala (Araba)

2. Erakunde mota

Publikoa

3. Xede taldea

Amurrioko adineko pertsonak

4. Lurralde eremua

Amurrio (Araba)

5. Egoera

Abian jarrita

6. Etiketak

Parte hartzea, zahartze aktiboa, Araba

7. Helburuak

Adinekoen Kontseiluak ahotsa eman nahi die adinekoei, beren beharrak, iritziak eta eskaerak adieraz ditzaten, haien ikuspegia entzuna ez ezik kontuan hartua ere izan dadin eta erabakiak hartzeko organoetan parte har dezaten. Adinekoen parte hartzea bideratzeko, beharrezkoak dira adinekoek berek antolatu eta kudeatutako egiturak, sareko lana eta beste erakunde batzuekiko lotura, eragiteko eta jarduteko duten gaitasuna handitze aldera. Era berean, garrantzitsua da mendekotasun egoeran dauden adinekoen parte hartzea ahalbidetuko duten neurriak prestatzea, haien ahalmenetara egokituak, betiere haien autonomia sustatzeko eta duintasunari eutsi diezaioten.

Gizartean aldaketa garrantzitsuak bultzatzen jarraitu beharra dago, adinekoen iritzian eta parte hartzean oinarrituta. Horretarako, haien autonomia bultzatu behar da, bai eta haien aukeratzeko eta erabakiak hartzeko gaitasuna ere. Baliabideak eskaini behar zaizkie bizi kalitate duinari eutsi diezaioten, eta haien prestakuntza eta informazioa sustatu, askatasunez aukeratzeko modu bakarra baita. Adinekoek parte hartzeko mekanismoak sortu behar dira, benetakoak eta irekiak.

Orain arte azaldutakoaren arabera, Amurrion Adinekoen Kontseilu Sektoriala organo aholku emaile gisa sortzea adinekoen parte hartze sozialerako aurrerapauso handia izan da, baita aintzatespen bat ere. Izan ere, aukera ematen du adinekoen jende taldearen esperientziaren balioak gizartearen esku jartzeko, eta parte hartzea bultzatzen du, adinekoen bizi kalitatea sustatzeko eta gizarte ongizatea hobetzeko proiektu gehiago egin ahal izateko.

Honako hauek dira Adinekoen Kontseilu Sektorialaren helburuak:

- Zahartze osasungarria sustatzea.
- Adinekoak ahalduntzea.
- Adinekoen artean ezagutza sustatzea.
- Udal organoen erabakietan eragina izatea.
- Adinekoen artean desberdinkeriak murriztea.

8. Metodologia

Adinekoen Kontseilua eratze eta adinekoentzako zentroa berriro diseinatze fasea

Garapen egutegia

2018ko urria: bilera bat. Aurreikuspenak, funtzioak (orokorrak) eta organoaren osaera zehaztea.

2018ko azaroa: bi bilera. Funtzioak (espezifikoak), osaera (bigarren atala), antolamendu arauak eta funtzionamendua zehaztea.

2018ko abendua: bi bilera. 2019-2020 aldirako lan plangintza onartzea.

2019ko urtarrila: bilera bat. Kontseiluaren Araudiaren 1. zirriborroa prestatzea.

2019ko otsaila: bilera bat. Nagusi gunea berriro diseinatzeko bilkura.

2019ko martxoa: bilera bat. Nagusi gunea berriro diseinatzeko bilkura.

2019ko ekaina: bilera bat. Kontseiluaren Araudia kontrastatzea.

2019ko azaroa: Kontseiluaren Araudia onartzea osoko bilkuran.

2019ko abendua: bilera bat. Kontseilua jendaurrean aurkeztea.

Inplikaturako eragileak edo norberaren izenean aritutako adineko pertsonak:

- Amurrioko Jubilatuen Elkarte
- Adinekoen teknikaria
- Partaidetzako teknikaria

Fasearen garapena

Amurrio Lagunkoia proiektuaren esparruan aurretik egindako lanaren ondorioz, udalerriko adinekoen bizi kalitatea hobetzeko lan egingo zuen adinekoen lantaldea osatu beharra azaleratu zen.

Amurrioko adineko guztiei zuzendutako deialdi irekia egin ondoren, 12 lagun inguruko taldea osatu zen. 2018ko urrian, azaroan eta abenduan, eta 2019ko urtarrilean, taldea udaleko teknikariek bildu zen aldizka, Adinekoen Kontseilua sortzeko aukera eta modua aztertzeko, adinekoen beharrak identifikatu eta baloratzeko, udalari proposamenak egiteko eta abar.

Talde hori behin behineko Kontseilua izan zen, eta urtebete baino gehiagor aritu zen lanean Kontseiluarentzako interes eremuak eta Adinekoen Kontseilu Sektoriala bera antolatzeko era zehazten (helburuak, egitura eta abar). Gai zehatzak lantzen hasi zen (aisialdirako eta prestakuntzako aukerak, gai interesgarriei buruzko eztabaidak eta abar), eta, azkenean, Kontseilua osatzeko aukera aztertu zen (Zertarako? Zergatik? Funtzionamendua?). Gai horien inguruko hausnarketaren ondorioz 4 lantalde sortu ziren, gerora araudiaren egituretan jasota geratu zirenak.

Lantaldearen lanarekin aurrera jarraitu baino lehen garrantzitsutzat jo zen Amurrioko adinekoei 2018-2019 aldian egindakoaren berri ematea eta hurrengo pausoak azaltzea. Horretarako, Amurrioko adineko guztiei zuzendutako deialdi irekia egin zen.

Saio horretan, lantaldeko kideak arduratu ziren beren lanaren ondorioak eta Adinekoen Kontseilua eratzeke proposamenak aurkezteaz. Aurrerago, adinekoentzako gizarte etxearen erabilerak eta funtzionamendu ereduak identifikatzeko prozesua jarri zen martxan, eta gutxieneko betebeharrak teknikoak, logistikoak eta elkarbizitzakoak zehaztu ziren. Erabiltzaileen, udaleko teknikarien eta

arduradun politikoen artean hausnarketa prozesua eraman zuten aurrera, fase hauetan:

- Taldeen erabilera beharrak eta/edo eskaerak jasotzea, bai eta horretarako aurreikusten diren oztopoak ere.
- Aztertu diren beste eredu batzuetan eta lortutako emaitzetan oinarrituta, Nagusi gunean egin daitezkeen ekitaldiak eta gunearen funtzionamendurako aukerak zehaztea.
- Nagusiren erabiltzaile izan daitezkeenekin batera, gunearen erabilera eta funtzionamendu ereduak aztertzea.
- Aurkeztutako ereduaren gaineko hausnarketa oinarritzat hartuta, funtzionamendua zehaztea: uztartu beharreko erabilerak eta jarduerak, erabiltzaileentzako funtzionamendu prozedurak, bizikidetzako arauak, zentroaren kudeatzaileen egitekoa eta abar.
- Eta, azkenik, sustatuko den eredu berria aurkeztea erabiltzaileei, jardueren sustatzaile izan daitezkeen udal ordezkariari (arduradun teknikoei) eta gainerako indar politikoei.

Adineko Kontseiluaren garapen fasea

Garapen egutegia

2019ko abendua: bilera bat. Lantaldeak eratzea.

2020ko urtarrila-abendua: bilera bat hilean behin. Kontseiluko lantalde bakoitzak aukeratutako gaien lanketa.

2021eko urtarriletik gaur egunera arte: bilera bat hilean behin. Kontseiluko lantalde bakoitzak aukeratutako gaien lanketa.

Adinekoen Kontseiluan inplikaturik dauden eragileak edo partaide diren pertsonak:

- Adinekoen teknikaria
- Partaidetzako teknikaria
- Alkatetza
- Landuko den gaiaren arabera gonbidatutako adituak

Fasearen garapena

2020an zehar Kontseiluaren jarduerari eusten saiatu ziren, aurrez aurreko bilerak eta bilkura birtualak eginda. Horretarako, prestakuntza saioak egin ziren talde txikietan, bakoitzak eskura zituen gailuen arabera.

Aurrez aurreko bilerak egin ziren hilero, martxotik ekainera izan ezik, hilabete horietan kontseilukideak telematikoki eta telefonoz bildu baitziren, jarduerari jarraipena emateko.

Landutako proiektu nagusiak:

- Amurrioko adinekoentzako baliabideen gida.
- Nahi gabeko bakardadea saihesteko boluntarioen proiektua zehaztea eta abian jartzea. Nagusilan Amurrio talde eragilea eratzea eta lehenengo

ekimenak martxan jartzea adinekoen egoitzetan. Udal eragileen koordinazioa ekimena martxan jartzeko.

- Adinekoek adinekoentzat egindako aldizkaria lantzea. Aldizkariko edukiak jorratzeko lantalde berezia eratu zen. Gaurdaino, aldizkariaren 4 zenbaki argitaratu dira.

2021ean, pandemiaren bilakaeraren inguruko ziurgabetasuna eta Adinekoen Kontseiluko kideen arrisku profila kontuan hartuta, taldearen jarduerari eustea eta 2020an hasitako proiektuei jarraipena ematea izan ziren Kontseiluaren lan aurreikuspenak:

- Nahi gabeko bakardadea arintzeko boluntarioen ekimena garatzea.
- «Nagusiak Aurrera» aldizkaria.
- Amurrioko eguneko zentro berriaren eta etxebizitza komunitarioaren aurreproiektuari egin beharreko ekarpenak lantzeko prozesua (antzeko zentroak bisitatzea barne).
- Saltoki lagunkoien inguruko ekimena aurrera eramatea.
- Botiken koordainketa bizkortzeko aukerak aztertzea.
- Txangoak programatu eta kudeatzea.
- Aisialdiko eta kulturako agenda programatu eta kudeatzea (hitzaldiak, zine foruma).

9. Alderdi berritzaileak

Botton-up prozesua. Udalerriko adinekoekin batera bi urte baino gehiagoz egindako hausnarketa prozesuaren ondorioz sortutako parte hartzeko eremua. Kontseilua ez da eratu kolektiboak berak horrelako ezaugarriak izango dituen organoa sortu beharra adierazi duen arte. Gainera, Kontseiluaren egitura, funtzioak eta abar interesa duten pertsonekin batera zehaztu dira.

Subjektu aktiboak dira, eta ez politiken hartzaile hutsak. Parte hartzeko eredu honekin, adinekoek berentzako politiken eta ekintzen gaineko erabakiak hartzen dituzte. Hala, aurrera eramango diren ekimenez gain, erakundearekin batera landu nahi dituzten arazoak adosten dituzte.

Prozesua bera da garrantzitsua, emaitzatik haratago. Parte hartzen ikasi egiten da, jardunaren eta esperientziaren bidez. Partaidetza prozesuak ikasketa prozesu ere badira, beste pertsona eta ideia batzuekiko interakzioa ahalbidetzen baitute, gai berrien gaineko ezagutza eskuragarri jartzeaz gain.

Askotariko taldea. Adinekoen jende taldearen ikuspuntu desberdinak bateratzea, askotariko izaera (ideologikoa, politikoa, generoari buruzkoa eta abar) bermatzeko.

Malgua. Ideiak eta baliabideak etengabe biltzen direnez, hobeto egokitzen gara etengabe aldatzen ari den errealitatera.

10. Ebaluazioa eta emaitzak

Kontseilua eratzeko prozesuan etengabeko ebaluaziorako mekanismoa txertatu da, eta, ondorioz, aldaketa ugari izan ditu prozesuak bere eboluzioan.

Prozesua autoebaluazioaren arabera eraman da aurrera, baina kideen erabakiaren mende egon da. Txosten honetan lehenago aipatu denez, kideek erabaki zuten Kontseilua noiz eratuko zen, proposamen teknikoa alde batera utzita.

Lantaldeen bilera guztiak, osoko bilkurak eta bilera irekiak baloratu egiten dira, eta gero, balorazio horiek etengabeko hobekuntza prozesua ahalbidetzen dute.

Bestalde, Kontseiluaren garapenarekin batera eztabaida politikoa egin da herritarren batzordean, baina horrek ez ditu Adinekoen Kontseiluaren erabakiak baldintzatu.

Udal foroak Kontseiluaren eragin politikoa eta erabaki politikoetarako aholkulari rola aztertu ditu.

Ebaluazio mekanismoa Adinekoen Kontseiluaren egituran dago txertatuta, Batzorde Iraunkorrean, zehazki; Batzorde horrek organoaren jardura kontrolatzen du.